

elkarte

59

INFORMAZIO ALDIZKARIA
2023ko ABENDUA

www.elkartean.org



elkartean

elkartean@elkartean.org



Bizimodu Independentea
izateko eskubidean
aurrera eginez



ARABA



EGINAREN EGINEZ

Arabako desgaitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

GIPUZKOA



AGADELPRISE

Gipuzkoako linfedema primario edo sekundarioak eta lipedemak erasandakoen elkarte

AGAER

Gaixotasun erreumatikoeak erasandakoen Gipuzkoako elkarte

AGE

Gipuzkoako epilepsiaren elkarte

AGI

Gipuzkoako ikusmen urria dutenen elkarte

ANAIDIA

Gutxitasuna duten pertsonen kristau senidetasa

ASPARGI

Gipuzkoako parkinson elkarte

BEGIRIS

Gipuzkoako itsu edo ikusmen urritasuna duten pertsonen inklusioa sustatzeko elkarte

BIZI-BIDE

Asociación Guipuzcoana de fibromialgia, síndrome de fatiga crónica, encefalitis miálgica múltiple y electrohipersensibilidad

KOXKA

Desgaitasunen bat duten Hernaniko elkarte

LEZDI

Lezoko gutxituen elkarte

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren dirulaguntzarekin egindako argitalpena.

Elkarte hauekin harremanetan jarri nahi baduzu, jo ezazu zure lurraldeko koordinatzaileara.

BIZKAIA



ACCU

Bizkaiko Crohnen eritasuna eta ultzeradun kolitisa duten gaixoen elkarte

ADELA

Alboko esklerosi amiotrofiakoaren Bizkaiko elkarte

ADELES

Bizkaiko Lupus eritematoso sistemikoa duten gaixoen elkarte

ADEMBI

Bizkaiko esklerosi anizkoitzaren elkarte

ADISA

Desgaitasuna duten pertsonen Santurtzioko elkarte

AHEVA

Bizkaiko hemofiliaren elkarte

ALCER

Bizkaiko giltzurruneko gaixotasunen aurkako elkarte

ARGIA

Bizkaiko ostomizatuen elkarte

ARNASA BIZKAIA

Euskal Herriko Fibrosis Kistikoaren Elkarte

ASEBIER

Arantza bifidoa eta hidrozefalia gaixotasun arraroen euskadiko elkarte

ASPANOVAS

Bizkaiko haur minbizidun gurasoen elkarte

BENE

Bizkaiko eritasun neuromuskularren elkarte

BIDARI

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Ermuko elkarte

BIZKEL

Bizkaiko bizkarmuinaren kaltetuak

BIZADELPRISE

Lifedema primario, sekundaioak eta Lipedema Eragindakoen Elkarte

CODISFIBA

Barakaldoko gutxitasun fisikoa duten pertsonen elkarte

EFELA

Gutxitasun fisikoa duten pertsonen Arratiako elkarte

EMAN ESKUA

Fibromialgia eta neke kronikoaren Bizkaiko elkarte

FRATER

Elbarrituen eta gaixoen kristau elkarte

LEVAR

Artritis reumatoidea duten pertsonen Bizkaiko elkarte

ARABA

Simón Bolívar plaza, 9 behea
Tel.: 945 22 55 16
Faxa: 945 06 18 09
01003 VITORIA-GASTEIZ
info@eginez.org
www.eginez.org

BIZKAIA

Blas Otero, 63 behea
Tel.: 94 405 36 66
Faxa: 94 405 36 69
48014 BILBAO
fekoor@fekoor.com
www.fekoor.com

GIPUZKOA

Ondarreta pasealekua, 5.ean
Tel.: 943 31 67 70
Faxa: 943 31 63 79
20018 DONOSTIA
elkartu@elkartu.org
www.elkartu.org

ARGITARATZAILEA:

EUSKADIKO DESGAITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTE KOORDINATZAILEA



L.G.:
Vi-123/01

Inprintzeko erabilitako materiala:



Iturri arduratsuetatik datorren paper partzialki birziklatua



OROKORRA

Euskadiko bizimodu independentearen ereduari buruzko diagnostikoaren aurkezpena

4

- 5 • Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemaren prestazioak arautzen dituen Dekretua aldatzea.
- 6 • Laguntza pertsonalaren figurari buruzko akordioa.
- 7 • Gizarte Ongizateko funtsaren prestazioa.
- 8 • Justiziarako sarbidea izateko plana.

ARABA

- 9 • Portoko eskualde bilera: Bizimodu Independentea.
 - “Goazen Eskolara Eginaren Eginezekin batera”.
- 10 • “El cuerpo deseado” liburuaren aurkezpena.
 - Aiaraldeko boluntarioen azoka.
- 11 • Bizimodu Independentearen eredia.
 - Desgaitasuna duten pertsonen Justiziarako sarbidea izatea.
- 12 • Elkargune.
 - Poliomieltisaren egungo egoera.
 - Erreserbatutako etxebizitzak eta furgoneta baten salmenta.

BIZKAIA

- 13 • Eguneko zentroetarako Foru Dekretu berria.
- 14 • Bilbao BBK Live eta Bizkaia Arena.
 - Bainu lagunduaren zerbitzua handitzea.
- 15 • Rural in life.
 - RENFEren irisgarritasunik ezaren aurkako protesta.
- 16 • Ondare jardunaldiak.
 - Azken borondateei buruzko hitzaldia.

GIPUZKOA

- 17 • 2. Ohar Orokorriari Buruzko gidaliburua.
- 18 • Bizimodu Independenteterako Programaren Ebaluazioa.
- 19 • Gipuzkoako hondartzei buruz parte hartzeko prozesua.
- 20 • REHACARE laguntza-produktuen azoka.
 - Gipuzkoako elkarrizketa zibilerako mahaia.
 - Matrikulazio zergan aplikatu beharreko irizpidea.

EUSKADIKO BIZIMODU

INDEPENDENTEAREN

EREDUARI BURUZKO

DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

Irailaren 20an, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak eta Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko Desgaitasuna duten Pertsonen Batzordeak antolatutako “Euskadin desgaitasunen bat duten pertsonentzako bizimodu independentearen eredurantz” izeneko jardunaldia egin zen Gasteizko Europa Biltzar Jauregian.

Ekitaldian, bizimodu independentearen ereduari buruzko diagnostikoa aurkeztu zen. Eredu hori egiteko prozesuan, **Elkarteanek** parte-hartze aktiboa izan du, bai eragin politikoko ekintzan, bai eredu bera, haren osagaiak eta aurrean ditugun erronkak zehazteko elkarrizketan eta lankidetzan.

Ekitaldiaren helburua Euskadin bizimodu independenterako eskubidea gauzatzeko dauden erronkak aztertzen hastea izan zen, inplikaturako eragile publiko eta pribatuen arteko adostasuna erreferentziatzen hartuta. Hala, eremu hauetan gauzatu beharreko ekintzak azaldu ziren:

- Bizimodu independentearen eredu eza-gutzeari eta arautzeari lotutako **jarduera orokorrak**.
- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren **zerbitzuak eta prestazioak**.
- Behar besteko **baliabide ekonomikoak**.
- **Etxebizitza duina**, egokia eta irisgarria.
- **Osasun-sistema**.
- Autonomia pertsonala sustatzeko **laguntza-produktuak**.

- Laguntzak eta aukerak **dinamizatzea**.
- **Informazio-sistema** eta adierazleak.
- Elkarrizketa zibilarekin, ebaluazioarekin eta genero-ikuspegiarekin lotutako **zeharkako elementuak**.

Elkarteanen ustez, ezinbestekoa da aztergai ditugun ekintzei ekitea, eta bereziki garrantzitsua da bizimodu independentearen eredu lege aitortzea eta arautzea, bai eta laguntza pertsonala kontratatze behar diren prestazioak eta laguntzak bermatzea ere, irizpide hauek kontuan hartuta: pertsonalizazioa, aukera askea eta estaldura ekonomiko osoa.

Jardunaldiari esker, egiaztatu egin zen erakunde publikoek eta desgaitasuna duten pertsonen Hirugarren Sektorre Sozialak bizimodu independentearen eredu sendotzeko eta bultzatzeko hartutako konpromiso publikoa. Planteaturako helburua lortzeko, eragile guztien lankidetzaren eta koordinazioaren behar dira, eta politika publikoak bat etorri behar dira Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioekin.

Beraz, **Elkarteanek** ordezkaritzaren, eraginaren eta errebindikazioaren arloan lan egiten jarraituko du, desgaitasuna duten pertsonen beren bizitzako alderdi guztiei buruz erabakitze behar eskubidea defendatzeko eta sustatzeko konpromisoa oinarritzen hartuta, haien erabateko inklusioa eta parte-hartze soziala bermatze aldera.



Autonomiarako eta mendekotasunaren arretarako sistemaren

Prestazioak arautzen dituen Dekretua aldatzea

Uztailaren 19an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 675/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazioak arautzen dituen abenduaren 27ko 1051/2013 Errege Dekretua aldatzen duena.

Dekretuak etxez etxeko laguntza-zerbitzuko orduak gehitzen ditu, telelaguntza-zerbitzua ematea gainerako prestazioen zerbitzu osagarritzat hartzen du, prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak handitzen ditu eta prestazio horien gutxieneko zenbatekoa ezartzen du, administrazio eskudun bakoitzaren ahalmen arautzailea alde batera utzi gabe. Gainera, familia giroan zaintzeko eta zaintzaile ez-profesionalei laguntzeko prestazio ekonomikoaren erregulazioan hainbat aldaketa jasotzen ditu. Aldaketarik nabarmenenak honako hauek dira:

- Zaintzaile ez-profesionalak izan ahal dira, orain arte bezala familiako harreman estuagoa duten pertsonen gain, harreman-inguruneko pertsonak, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonak proposatuta, eguneroko bizitza egiteko behar dituzten laguntza eta zaintzak emateko moduan badaude.
- Pertsonak III. edo II. mendekotasun-gradua aitortuta duenean, beharrezkoa izango da zaintzaile ez-profesionalarekin bizitzea, etengabeko arreta eta etengabeko laguntza behar duelako.
- Pertsonak I. mendekotasun-gradua aitortuta duenean, bizikidetzako baldintza hori salbuetsi ahal izango da, betiere zaintzaile

ez-profesionalak berehala artatuko duela bermatzen bada.

- Mendekotasuna duen pertsona ingurune-ko zainketen bidez artatuko da banakako arreta-programa egiten edo berrikusten den unean, ez aurretik.
- Zaintzaileak proposatzen zaizkion preskakuntza-ekintzak egin behar ditu, betiere mendekotasuna duen pertsonaren zaintzarekin bateragarriak badira.
- Zaintzaileak mendekotasuna duen pertsonaren etxebizitzarako sarbidea erraztu behar die gizarte-zerbitzuei, baldintzak betetzen diren edo inguruabarrak aldatzen diren egiaztatzeko, onuradunak baimena eman ondoren.

Aldaketak gauza onuragarriak planteatzen baditu ere, bereziki baldintza jakin batzuk maltzeari eta zerbitzuen bateragarritasunari dagokienez, **Elkarteanen** ustez, mendekotasuna duten pertsonen ematen zaizkien zerbitzuen intentsitatea ez litzateke mendekotasun-graduaren arabera zehaztu behar, pertsona bakoitzaren premia indibidualen arabera baizik. Bestalde, familiako zaintzaileen preskakuntzan aurrera egitea positiboa bada ere, ez da komenigarria prestazioa jaso ahal izateko alde aurreko baldintza gisa ezartzea, zaintzaileen eskubide bat betebeharrak bihurtzen baitu, eta baliteke familia-laguntzen kalitatea zalantzan jartzen duela ulertzea.

LAGUNTZA PERTSONALAREN FIGURARI

BURUZKO AKORDIOA

Maiatzaren 30ean, Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Gizarte Eskubideen Estatu Idazkaritzaren 2023ko maiatzaren 24ko Ebazpena, Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren laguntza pertsonala eskuratzeko baldintza espezifikoak zehazten eta ezartzen dituen Gizarte Zerbitzuen eta Autonomia eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren Lurralde Kontseiluaren Erabakia argitaratzen duena.

Hauek dira Erabakiak dakartzan berrikuntza nagusiak:

- Bizimodu independentearen proiekturako laguntza-plana mendekotasuna duen pertsonak bere bizi-proiektuaren arabera garapen pertsonal eta sozialerako egunerokoan behar dituen laguntzen multzoa da. Dokumentu teknikoa da, idatziz jaso behar da, eta mendekotasuna duen pertsonak parte hartu behar du diseinuan, gauzatzean eta jarraipenean.
- Laguntza pertsonaleko zerbitzua profesional autonomoen bidez edo enpresa/erakundeen bidez bakarrik kontratatu ahal izango da, eta ez da onartzen desgaitasuna duen pertsonak enplegatzaile gisa jarduteko aukera.
- Ezin izango da laguntza pertsonaleko zerbitzurik eman familia-etxeko zerbitzuaren lan-harreman bereziaren bidez.
- Kualifikazioen Institutu Nazionalari (INCUAL) laguntza pertsonalerako profesionaltasun-ziurtagiri espezifiko bat arautzeko eskatzen zaio.
- Berariazko profesionaltasun-ziurtagiri bat onartu arte eskatuko diren titulazio edo ziurtagiri profesionalak ezartzen dira.
- Salbuespenez, eta laguntza pertsonalerako profesionaltasun-ziurtagiri espezifiko bat onartu eta hori lortzeko epea zehaztu arte, administrazio publiko eskudunek behin-behinean gaitu ahal izango dituzte zerbitzu hori emateko, bai esperientzia dutela egiaz-

tatzen duten pertsonak, bai laguntza pertsonalaren arloko oinarritzko prestakuntza jaso dutenak. Orientazio gisa, laguntza pertsonalerako oinarritzko prestakuntzaren gutxieneko eduki batzuk planteatzen dira.

Laguntza pertsonala desgaitasuna duen pertsonen bizimodu independenterako eskubidearen funtsezko osagai gisa aitortzea eta garatzea aurrerapausoa bada ere, **Elkarteanen** ustez Erabakiak bizimodu independentearen ereduaren funtsezko printzipioak zailantzan jartzen dituzten alderdiak barne hartzen ditu. Horrenbestez, onartezina da desgaitasuna duen pertsonak berak ezin izatea zuzenean kontratatu laguntzaile pertsonala, eta hori enpresa/erakunde baten bidez egin behar



izatea, edo profesional autonomo baten zerbitzuak kontratatuz; izan ere, modalitate hori hutsala da laguntza pertsonalaren eremuan. Horrek erabat mugatzen du pertsonaren beraren autonomia eta aukera askea, eta, era berean, gastu handiagoak eragiten ditu zerbitzuaren kudeaketan, eta baliteke, ondorioz, laguntza-ordu eraginkorrak kontratatzeko ahalmen ekonomikoa mugatzea.

Era berean, **Elkarteanek** profesionaltasun-ziurtagiria diseinatu eta arautu behar dela adierazi du, desgaitasuna duten pertsonekin lankidetzan estuan egingo den laguntza pertsonalerako, ordezkatzeko dituzten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen bitartez.



Gizarte Ongizateko

funtsaren prestazioa

Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legeak maiatzaren 26ko 129/1986 Dekretua indargabetzen du. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Ongizateko Funtsetik adinekoentzat eta lanerako ezinduentzat emango diren pentsioak arautzen dira.

Horrek esan nahi du ezin izango dela Gizarte Ongizateko Funtsaren eskaera berririk aurkeztu; prestazio hori aitortuta dutenek, berriz, baldintza berberetan jasotzen jarraituko dute, eta ebazteke dauden eskaerak aurretik indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetuko dira.

Nahiz eta prestazio hori bigarren mailakoa izan beste gizarte-prestazio batzuekin alderatuta, **Elkarteanen** ustez, neurri horrek kalte handia eragiten die % 45etik gorako desgaitasuna eta enplegarritasunerako zailtasunak dituzten pertsonen, beste diru-sarrera edo laguntza publiko batzuk jasotzeko aukerarik ez badute, eta, ondorioz, kalte ekonomiko larria eta gizarte-bazterkeriako egoera eragiten die.

Era berean, ezin da alde batera utzi, aipatutako prestazioaren zenbatekoaz gain, prestazio hori aitortzeak desgaitasuna duten pertsona onuradunei aukera ematen zela Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eskuratzeko, bizikidetzan-unitate independente bat eratuz, pentsio bakar baten hartzailetzat jotzen baitziren.

Hori dela eta, **Elkarteanek** Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta arautzeko ekintza positiboko neurriak har ditzala Gizarte Ongizateko Funtsaren onuradun izan daitezkeen desgaitasuna duten pertsonentzako, komunitatean berdintasun-baldintzetan parte hartzeko aukera emango dien diru-sarrera duinak bermatzeko.

JUSTIZIARAKO SARBIDEA IZATEKO

PLANA

Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea izateko plana Eus-kadiko 2022-2028 Justizia Plan Estrategikoan jasotako proiektuetako bat da, pertsona ahulenei justiziarako sarbidea errazteko ildo estrategoaren barruan.

Plan horren helburuak honako hauek dira:

- Desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea bermatzea, modu eraginkorren eta gainerako herritarren baldintza berberetan.
- Desgaitasuna duten pertsonen gaitasun juridikoa modu autonomoan gauza dezaten laguntzea.
- Antolaketa- eta giza baliabideak ematea, justiziaren eremuan desgaitasuna duten pertsonen eskubideak bermatzeko behar diren laguntzak izateko.

Aipatutako helburuak betetzeko, lau ildo estrategiko ezarri dira:

Lehenik eta behin, justiziarako sarbidea: pertsonak justizia-administrazioetara hurbiltzeko moduak edo arrazoiak aztertzen dira, desgaitasuna duten pertsonen sarbidea zailtzen dieten oztopoak detektatzeko eta ezabatzeke.

Bigarrenik, egoitza judizialerako sarbidea: irisgarritasun-egoera aztertuko da, egoitza judizialean zein elektronikoetan.

Hirugarrenik, prozeduretarako sarbidea: desgaitasuna duten pertsonen beren eskubideak gainerakoen baldintza berberetan egikaritzeko behar dituzten laguntzak eta doikuntzak izatea prozedura juridikoean eta horien fase guztietan.

Laugarrenik, ezagutzak: ezagutza bi norabidetan hobetzea: Justizia Administrazioak sortzen eta transmititzen duen informazioaren eskuragarritasuna hobetzea, askotariko beharrezan dituzten erabiltzaileentzat erabilgarria den informazio espezifikoak sortuz, eta Justizia Administrazioak berak desgaitasuna duten pertsonen beharrezan hobeto ezagutzea.

Elkarteanen ustez, Plan hori oso onuragarria da; izan ere, desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea bermatzeko lehen urratsa da, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 13. artikuluan jasotzen dena betetzeko, eta hala, desgaitasunagatik bereizkeria-mota oro ezabatzeke.



PORTOKO ESKUALDE BILERA: BIZIMODU INDEPENDENTEA

Irailaren 14an eta 15ean, Bizimodu Independentearen Europako Sareak gonbidatuta, eginaren eginez Kideen Urteko Eskualde Bilerara joan da Portora (Portugal). Topaketaren helburua izan zen eskualdeko Bizimodu Independentearen Europako Sareko (ENIL) kideekin biltzea, gure mugimenduarentzat garrantzitsuak diren gaiei buruz eztabaidatzea eta esperientziak partekatzea.

Europa hegoaldeko eta mendebaldeko 11 herrialdeko kideak (Albania, Belgika, Frantzia, Alemania, Grezia, Italia, Malta, Ipar Mazedonia, Portugal, San Marino, Espainia), eta Norvegiako kideak bildu eta gure herrialdeen aurrerapenak partekatu genituen, eta ENILen lana ezagutzeko, atzeraelikadura emateko eta etorkizuneko jardueretarako iradokizunak egiteko aukera izan genuen. Jakina, kontaktuak egiteko, hartu-emanerako eta hainbat esperientzia ezagutzeko astia ere izan genuen.



Lehen egunean, aukera izan genuen bizimodu independenteren arloan aurrerapausoak eman nahi genituenean herrialdeok izan genituen erronkak eta arrakastak aurkezteko eta horiei buruz eztabaidatzeko. Gauza interesgarri asko entzun genituen, baina bakar bat aukeratu beharko bagenu, hauxe izango litzateke: pentsa litezkeenak baino gauza gehiago ditugula komunean; eta berdin dio zein den bizilekua, desgaitasuna duten pertsonen oztipoen eta kapazitismoaren aurka egiten duten borroka berdina da eta abian dago nonahi. Egun horretan, ENILEk gure lanari buruzko ideiak eta eguneratzeak ere eskaini zituen, eta ondoren eztabaida bat izan zen.

Bigarren egunean laguntza pertsonalaren (LP) gaia aztertu genuen. Portugal eta Greziako LPri buruzko proiektu pilotua ezagutzeko aukera izan genuen, bai eta erabakiak hartzeko laguntzari eta guztiontzako laguntza pertsonalerako eskubideari buruzkoak ere; eta berriz ere antzekotasunak aurkitu genituen. Horrek laguntza pertsonalari buruzko elkarrizketa eta eztabaida zabalagoak sortu zituen.

Eskualdeko kideen bilera aberatsa eta argigarria izan zen, eta etorkizuneko truke eta ekintzetarako oinarriak ezarri zituen. Eskerrak eman nahi dizkiogu Portugalgo Bizimodu Independentearen Zentroari, bilera hau antolatzen emandako laguntza baliotsuagatik, bai eta Matosinhos udalerriri ere, harrera egiteagatik, eta ENILi, gonbidatzeagatik eta elkartzeko eta lanerako gune hau ahalbidetzeagatik.

“GOAZEN Eskolara EGINAREN EGINEZKIN BATERA”

Eginaren eginez **GOAZEN Eskolara** eginaren eginezkin **BATERA** programarekin hasi ditu hezkuntza-arloko esku-hartzeak. Aurtun, programa horrek Gasteizko Udalaren osasun publikoko dirulaguntzen B lerroaren laguntza izan du, eta **HIRI HEZITZAILEA** programan sartu da; **hurrela hezkuntza-maila guztietara iritsiko da.**

Desgaitasuna duten pertsonen ikasgeletan egiten dituzten esku-hartze horien bidez, kolektiboko emakumeen eta gizonen errealitate askotarikoarekin kontaktua izatea, hori ezagutzea eta errealitate hori errespetatzen duten irudi positiboak sortzea sustatu nahi ditugu, mito eta estereotipo negatiboak baztertuz. Eskola-eremuan giza aniztasuna errespetatzeko eta balioesteko balioak sustatu nahi ditugu, eskola inklusiboa bultzatzeko, non ikasleak eta hezkuntza-komunitatea garatu egingo diren, haien indibidualtasuna errespetatzeko, balioesteko eta aintzat hartzeko baldintzetan, bai haientzat, bai haien familientzat.

Urriaren 10ean Francisco de Vitoria institutuan izan ginen eta azaroaren 2an Egibide Molinuevon.

| Araba |


“EL CUERPO DESEADO” LIBURUAREN AURKEZPENA

Irailaren 26an, *“EL CUERPO DESEADO: la conversación pendiente entre feminismo y anticapacitismo”* liburuaren aurkezpena egin zen Elkartearen egoitzan, Andrea García-Santesmanes soziologo eta antropologoaren eskutik.

Oinarrizko gaiak eta gai erradikalak argi eta garbi azaltzen ditu liburu honek. Mugimendu feministen eta borroka antikapazitistaren esparruaren eta giza eskubideak eraginkortasunez erabiltzearen aldeko mugimenduaren inguruan gai horiek aspalditik hor egon badira ere, oraindik ez dituzte partekatu, agerian jartzeko, aitortzeko, aztertzeko eta eztabaiatzeko.

Feminismoa dibertsitate funtzionalarekin elkarrizketan jartzea da helburua, eta elkarrizketa hori da Andrea García-Santesmanesek sustatu eta elikatzen duena, hainbat gai ardatz hartuta: generoa, zaintzak, indarkeria, sexualitatea, desberdintasuna eta aniztasunaren politizazioa...

Ale batzuk eskuragari ditugu Elkartean, irakurri dezazun.



AIARALDEKO BOLUNTARIOEN AZOKA

Urriaren 8an Boluntariotzaren Azoka egin zen Amurrión. Elexondo kalea 11:00etatik 14:00etara eskualdeko elkarte-sarearen erakusleho bihurtu zen. Aiaraldeko bigarren Boluntariotza Azokaren bidez lortu zen hori, Arabako Boluntariotza Agentziak eta koadrilan lan egiten dugun hamabost kolektibok antolatuta.

Jai eta elkartasun eguna izan zen, –iazko ekainean Laudion egin zen lehenengo azoka, ibiltari izateko asmoarekin–, eta herritarrek bertatik bertara ezagutu ahal izan zuten inguru horretan boluntariotzari eskainitako hainbat erakundek egiten dugun lan inspiratzailea. Izan ere, bertaratutakoek aukera izan zuten kolektiboan ordezkariak ezagutzeko, gure misioei buruz ikasteko eta boluntario gisa modu esanguratsuan nola lagun dezaketen jakiteko.

Erakunde bakoitzak informazio-stand bat izan zuen bere proiektua zertan datzan azaltzeko. Gainera, adin guztientzako jarduerak eskaini genituen: haurrentzako txokoa, musika eta hainbat ekimen eta tailer.



BIZIMODU INDEPENDENTEAREN EREDUA

Irailaren 20an, Europa Jauregian egindako jardunaldian parte hartu genuen, “*Euskadin desgaitasunen bat duten pertsonentzako bizimodu independentearen eredurantz*”. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak antolatuta, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko Desgaitasuna duten Pertsonen Batzordearekin batera.

Jardunaldian, Euskadin desgaitasuna duten pertsonentzako bizimodu independentearen oinarriak ezartzeko egindako *diagnostiko*-dokumentua aurkeztu zen. Diagnostikohori Euskadiko hirugarren sektoreko erakundeetako ordezkariak, foru-aldundiek eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek egin zuten, 2021. eta 2022. urteen artean. Aleak eskura dituzu Elkartearen eta www.egin.org webgunean.

Gure aldetik, *eginaren eginez*ek inplikatur jarraitzen du Araban Bizimodu Independenterako Bulego bat lortzeko, desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independenterako proiektuak bultzatze aldera. Horretarako, Down Araba Elkartearekin eta desgaitasuna duten pertsona fisikoekin elkartu da **GEUK ERA-BAKIZ** bulegoan, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin hitzarmen bat sinatzeko eta bulego hori kudeatzeko.

Baliabide berri hori Salburua auzoan egongo da, Brusela etorbideko merkataritza-guneko lehen solairuan, eta bizimodu independenterako plana diseinatu nahi duten desgaitasun-mota guztiak dituzten pertsonen irekita egongo da, eta plana diseinatzeko aholkularitza eta beharrezko tresnak emango zaizkie. Halaber, Erakundetik prozesu horiek ahalbidetuko dituen laguntza ekonomikoa onartzeko izapideak azkartzea espero dugu.

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEK JUSTIZIARAKO SARBIDEA IZATEA

eginaren eginez urriaren 24an EDEKAK antolatutako jardunaldira joan zen: “desgaitasun fisikoa duten pertsonen justiziarako sarbidea”. Gainera, duela gutxi, Elkartearen bidez, Justizia Sailarekin lankidetzan aritu gara Justiziarako Sarbidea izateko Planean (hiru urteko betearazpen-epea, 2026ra arte).

Jardunaldian, desgaitasuna duten pertsonen justiziarako sarbidea aztertu zen, eskubide zapuztuak, borxatuak edo kontuan hartu gabekoak leheneratzeko bide edo giltza gisa. Justiziarako sarbidean beti salatu izan ditugun oztopo klasikoak ere aipatu ziren: komunikazioetan irisgarritasun fisiko eta kognitiborik eza, justizia-administrazioan lan egiten duten profesionalen prestakuntza egokirik eza eta prozedura judizialen konplexutasun eta zurruntasuna.

Amaitzeko, justiziarako sarbidean gainditu beharreko hiru erronka nagusi jarri ziren agerian: prozedura-doikuntza pertsonalatuak; desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea prozedura judizialen fase guztietan, eta justizia-administrazioan lan egiten dutenen trebakuntza egokia.

Tokiko prentsak horren berri eman zuten, eta Diario de Noticias de Álava horri buruzko elkarrizketa egin zigun. Hemen duzu elkarrizketara sartzeko esteka:

<https://www.noticiasdealava.eus/gasteiz/2023/10/24/justicia-personas-diswindodad-alava-distante-7424369.html>



ELKARGUNE

Legegintzaldi honetako lehenengo bilerak hasi dituzte udal Elkarguneek. *eginaren eginez*ek Bizikidetzeta eta Aniztasuna, Osasuna eta Kontsumoa, Berdintasuna eta Ingurumena arloetan parte hartzen du, betiere desgaitasuna duten pertsonen ikuspegia emateko, eta deialdien lehen txanda honetan Bizikidetzeta eta Aniztasunaren Elkargunera joan ginen urriaren 23an.

Lehenengo saio honetan Elkarguneko erreferentziako zinegotzia ezagutu dugu eta legegintzaldirako ildo nagusiak aurkeztu dira. Halaber, 2024ko aurrekontueta-rako proposamenei heldu zaie. Ildo horretan, *eginaren eginez*ek, desgaitasuna duten pertsonen beste kolektibo batzuekin batera, Irisgarritasunari buruzko Legea betetzea proposatu du. Horretarako, hainbat gaitarako behar diren inbertsioen aurrekontua egin du: erreserbatutako aparkaleku-plazak birdiseinatzeko, zintarria zero kotara jaisteko, semaforoetako soinu-mailak berrikusteko, oinezkoen ibilbide irisgarria errespetatzeko kanpainak egiteko, kultura- eta kirol-jarduerak programatzeko (aniztasuna kontuan hartuta)...

POLIOMIELITISAREN EGUNGO EGOERA

Urriaren 24an Poliomielitisaren Munduko Eguna ospatu zen. Gaixotasun horrek izurrite handiak eragin zituen 50 eta 60ko hamarkadetan. Hala ere, ez dago poliomielitisa izan zuten pertsoneri (Espainian 36.000 inguru) buruzko azterketa epidemiologikorik. Eta *eginaren eginez*en, pertsona horiek duela 44 urte Elkarte sortu zutenen haziaren parte dira.

*eginaren eginez*ek Burgosko Unibertsitateko Katedrak urriaren 20an antolatutako jardunaldian parte hartu zuen. Katedra hau bakarra da munduan, eta gaixotasunari eta gaur egun gaixotasun sendaezin horren ondorio ezgaitzaileak pairatzen dituzten haurrei buruzko azterlan, ikerketa eta jardunaldi horiek sustatzea du helburu.

Adituek osatutako mahai-inguruetan parte hartu genuen, eta diziplina anitzeko ikuspegi batetik aztertu genituen polioaren alderdi historikoak eta polioa izan genuen pertsonen alderdi kliniko-asistentzialak.

ERRESERBATUTAKO ETXEBIZITZAK ETA FURGONETA BATEN SALMENTA

Construcciones Najera Novoa SL enpresa Vitoria-Gasteizko Salburuako 13. sektoreko RCP-11 lurzatian (Antonio Amat Maiz kaleko 26-28 zenbakia) “Residencial Innova” izeneko 40 etxebizitzaren sustapena egiten ari da, garaje-plaza eta babes ofizialeko trastelekua barne. Horietatik 2 etxebizitza erreserbatuta ditu desgaitasuna duten pertsonentzat. Prezioak honako hauek dira:

1. ataria, A eskailera 6. ezka, T-28 G-35, 176.998,46 €.

1. ataria, B eskailera, 5. esk., T-15 G-2-, 176.718,22 €.

Pertsona batek Ford Custom RE Independence furgoneta egokitu-tua saltzen du, 2023ko apirilaren amaieran erositako (2023ko apirilaren 19ko matrikulazioa). 1100 km ditu eta beti garajejan egon da.

Prezioa: 55.000 €.

Kontaktua: 605830636.



EGUNEKO ZENTROETARAKO FORU DEKRETU BERRIA

Bizkaiko Foru Aldundiak aurreikusita zuen desgaitasuna duten pertsonak eguneko zentroetan sartzeko araubidea eta zerbitzua emateko baldintzak arautuko dituen dekretu bat egitea 2023rako.

Fekoarren ustez, orain arte egon den erregulazioa ez da osoa izan; izan ere, esku pribatuetan uzten zen, eta enpresa pribatuek foru-erakundearekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzen zituzten. Horregatik, ekimen hori txalotu egiten dugu, eta dekretu berriak, arautzerakoan, zerbitzua eta zerbitzua eskuratzeko eskubidea duten pertsonak argi eta garbi zehaztea proposatzen dugu.

Gure ustez, eguneko zentroek banakako arreta integrala eskaini behar diete desgaitasuna duten pertsonari, bizimodu independente baten kudeaketan ahalduntzeko. Ildo horretan, bi zerbitzu mota proposatzen ditugu:

- **Eguneko zentroak/Intentsitate handiko laguntza-unitateak**, desgaitasuna duen pertsona bakoitzaren autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala sustatzen dutenak, baldin eta intentsitate handiko edo ertaineko laguntza behar badute eguneroko jarduerak egiteko edo ingurune gaitzaile eta, aldi berean, okupazional batean bizi-kalitatea hobetzeko.
- **Eguneko zentroak/Bizimodu independentean ahalduntzeko laguntza-unitateak**, beren ingurunean bizitzen jarraitu nahi duten baina hori gauzatzeko laguntza behar duten pertsona desgaituentzat.



Bi modalitateetan sartzeko, eskatzen dugu ez exijitzea 5 urteko Espainiako nazionalitatea izatea edo EBko beste edozein nazionalitate izatea zentro horietan eskainitako laguntzak behar dituen mendekotasuna duenari.

16 urtetik gorakoa izan beharko du, goitik, adin-mugarik gabe; emantzipatuta eta Bizkaian erroldatuta egon beharko du plaza-eskaera aurkezteko unean, eta **edozein menekotasun-gradu edo % 33tik gorako desgaitasun-gradua** aitortuta izan beharko du.

Gainera, dekretuak osasun-laguntza espezializatua eta/edo iraunkorra behar duten pertsonentzako sarbide-murritzaketak arautu behar ditu, baita gaixotasun infektzioso-kutsakorra edo mentala izanez gero dagoen tratamendua baztertu dutenentzako ere.

Zerbitzua ematen duen erakundeak itxarrote-zerrenden kudeaketan eta plazen izendapenean parte hartu beharko du; zerbitzuaren **onuradunari, berriz, plaza bere lehentasunezko zentroan eskainiko** zaio, edo zentroen lehentasun-ordena ezarri ahal izango du.

Zerbitzu horiek **doakoak izan behar dute eta urteko egun guztietan irekita egon behar dute astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.**

Gure Federazioak lehentasunezko zat jotzen du Gizarte Ekintzako Foru Sailak hirugarren sektoreko erakundeekin partekatzea etorkizuneko dekretu-proposamena, hobetzeko alderdiak aurkezteko.



BILBAO BBK LIVE ETA BIZKAIA ARENA

Fekoorren jardueretako bat irisgarritasunaren arloko aholkularitza da. Ildo horretan, bilerak egin ditugu BBK Liveko (Last Tour enpresa) antolatzaileekin eta Bizkaia Arenako ordezkariekin, eta ikuskizunak eta kontzertuak gauzaterakoan egin ditzaketen hobekuntzak helarazi dizkiegu.

Aurtengo Bilbao BBK Live jaialdian, uztailen, Kobetamendira hurbildutako laguntza behar zuten eta mugikortasun urria zuten pertsonak artatzeko langileak kontratatu izana aintzat hartu dugu. Pertsona horiek autobus egokituen zerbitzua eta plataforma bat erabili ahal izan zituzten bi agertokitako kontzertuak ikusteko.

Era berean, **Bilboko Udalarekin** lanean ari gara bonuen, kirol- eta kultura-ikastaroen tarifetan hobariak eta deskontuak lortzeko desgaitasuna edo lanerako ezintasun iraunkorra duten pertsonentzako.

Era berean, **Sondikako eta Mundakako udalekin** bildu gara, joan-etorri handiko inguruneetan edo ingurune estrategikoetan irisgarriak ez diren eremuak detektatzeko, herritarren erabateko inklusioa lortzeko soluzio eraginkorrak emate aldera.

BAINU LAGUNDUAREN ZERBITZUA HANDITZEA

Fekoorrek Bizkaiko Foru Aldundiari bidalitako hainbat bilera eta idatziren ondorioz, aurtengo hondartzetako bainu lagunduaren zerbitzua hobetu egin da. Ekainaren 1etik aurrera bainu lagunduaren zerbitzuaz gozatu ahal izatea eta horretarako bi hondartza gehiago izatea, gainerako pertsonak bezala, aurre-rapausoa da gure erakundearentzat, berdintasun eta irisgarritasun unibertsaleko eskubideak betetzeko bidean. Era berean, gure bizi-kalitatea hobetzen du, gure bizimodu independentearen eremuan aurrera egiteko aukera ematen baitigu, laguntzak hobeto eskainiz.

Hala ere, hobetzeko proposamenak jasotzen dituen dokumentu bat egin dugu, eta ez diogu uko egiten urtez urte bainu lagunduaren zerbitzua ematen duten hondartzen kopurua gehitzeari.





RURAL IN LIFE

Europako Independent Life Landa Proiektuak aurrera jarraitzen du. Madrilgo Nazioz Gaindiko Topaketan ondoren, non desgaitasuna duten pertsoneri arreta ematen dieten profesionalak prestatzeko lehen saioa egin zen, Turinen elkartu ginen, udalerrri eta profesionalentzako Bizimodu Independentearen Gidaliburua egiten hasteko, lehenengoetarako Trantsizio Planak eta bigarrenentzako Banakako Planak egiteko.

Ondoren, urrian, **Istanbuler** txanda izan zen. Bertan, prestakuntza-curriculumean oinarrituta egindako MOOC formatuko **plataforma digitala** probatu genuen. Plataforma hori profesionalen prestakuntza, tutoretza eta prestakuntzarako materiala eskainiko dituen hezkuntza-tresna izango da. Bizimodu independenteari eta laguntzaile pertsonalari buruz diseinatutako curriculumaren bertsio laburtua izango du, baita beste baliabide batzuk ere, hala nola bideoak, herrialde bakoitzeko zerbitzuetarako esteka, infografiak, etab.



RENFEREN IRISGARRITASUNIK EZAREN AURKAKO PROTESTA

Joan den uztailen, **Fekoorrek** eta bere elkar-te-mugimenduak kontzentrazioa egin zuten Bilbon, **“RENFE Aldiriak ez gaitu hurbiltzen”** lelopean, gaur egun Bizkaiko herri eta auzo askok garraio irisgarririk ez dutela salatzen.

Protesta horren ondorioz, urrian Renfeko ordezkari-za batekin bildu ginen, gure kolektiboak garraio-erabiltzeko duen ezintasunaren berri emateko eta geltoki guztietako irisgarritasun-lanak bizkortzeko eskatzeko.

RENFEk gogorarazi zigun 2020-2028 Irisgarritasun Plana zegoela, irisgarritasun unibertsala bermatzeko, baina ez zen eperik zehaztu arazo hori konpontzeko.

Bizkaiko trenbide-sarearen inguruan 120.000 pertsona inguru bizi dira, eta ez dute garraio inklusiborik, nahiz eta **Fekoorrek** urteak daramatzan hori eskatzen. Bizkaian eta Araban lan egiten duen sareko 63 geltokietatik, **herenak ere ez dira irisgarriak**. Bestalde, mugikortasun-arazoak, ikusmen-murrizketa, entzumen-murrizketa edo komunikazioan zailtasunak dituzten 10.000 pertsonak baino gehiagok ezin izan dute, eta ezin izango dute, epe laburrean, Renferen aldiriko zerbitzua erabili lurralde historiko honetan.

| Bizkaia |

ONDARE JARDUNALDIAK

Bizkaiko Ondareari buruzko XXII. Europako Jardunaldiak zirela eta, Fekoorrek Deustuko Erriberan ibilaldi gidatuak antolatu zituen urriaren 14an eta 21ean, lurraldeko ondareari balioa emateko.

Ibilbidean zehar, audio baten bidez, inguru horretan bizi izan ziren adinekoen testigantzak entzun genituen, eta paisaia, bizitza soziala eta enpresak nolakoak ziren ezagutu genuen. Ingurune hori erabat eraldatuko denez, lekukotasuna eta informazioaren transmisioa **ondare ez-materialtzat** hartzen dira.



AZKEN BORONDATEEI BURUZKO HITZALDIA

Victor Landa familia-mediku eta do-luan adituak hitzaldi bat eskaini zuen urrian Fekoorreko Youtube kanalaren bidez, azken borondateei buruz. **Dokumentu legal horretan, gaixoak jarraibide sanitarioak ematen ditu, erabakitzeko gaitasuna galtzen duenean kontuan har daitezten.**

Landak azaldu zuenez, dokumentua hiru instantziatan aurkez daiteke: **Notariotzan, Aurretiazko Borondateen Euskal Erregistroan edo 3 lekukoren aurrean.** Nahiz eta aitortu zuen gogorra dela nola hil nahi dugun erabakitzeko pausoa ematea, adierazi zuen “bizirik geratzen zaigun denboraren kalitatea hobetzen duela”, gaitz iraunkorra duen pertsonak erabakitzen baitu, kontziente denean, nolako amaiera nahi duen, ospitaleko ohe batean kablez inguratuta, edo bere familia-ingurunean.

Norbaitek informazio hori kontsultatu nahi badu, Youtubeko gure kanalaren esteka honetara sar daiteke:

 <https://youtu.be/aUmL0VXsIAg>



2. OHAR OROKORRARI BURUZKO GIDALIBURUA

elkartuk gidaliburu didaktiko bat egin du Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Batzordearen 2. ohar orokorrari buruz, irisgarritasunerako aitortutako eskubidea jorratzen duena.

Dokumentu honen helburua da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren 9. artikulua garatzen duen ohar orokor horren edukia modu erraz eta didaktikoan partekatzea. Bertan ezartzen denez, irisgarritasuna alde zuzeneko baldintza bat da desgaitasuna duten pertsonak modu independentean bizi ahal izateko, eta gizartean bete-betean parte hartu ahal izateko, gainerako baldintza berberetan.

Dokumentutik, haren arau-educia taxutzen duten gogoeta hauek ondorioztatzen dira:

- **Ez-betetzea** diskriminazioaren testuinguruan azertu behar da.
- Bere konplexutasun osoan **landu behar da**, ingurune fisiko, garraioa, informazioa eta komunikazioa eta zerbitzuak barne.
- **Irisgarritasunak** agintaritza publikoa zein eremu pribatua lotesten ditu.
- Desgaitasuna duten pertsona guztiei **ziurtatu behar zaie**.
- Diseinu unibertsala **aplikatzeak** kostu txikiagoa eragiten du.
- Pertsona guztientzako **onuragarria** da, ez bakarrik desgaitasuna duten pertsonentzako.
- Hiriguneetan zein landa-eremuetan **bermatu behar da**.
- Desgaitasuna duten **pertsonek** jendeak erabil eta goza ditzakeen ingurune fisikoko alderdi natural eta kulturaletarako sarbidea izan behar dute.
- Irisgarritasunean inplikaturako pertsona guztiei prestakuntza **eskaini behar zaie**.
- **Indartu egin behar da** desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze zuzena produktuen garapenean.
- **Objektu**, azpiegitura, instalazio, ondasun, produktu eta zerbitzu berri guztiak guztiz irisgarriak izateko moduan diseinatu behar dira.
- Gainbegiratze-mekanismo eraginkorrak **agindu behar dira**.
- **Irisgarritasun-arauak** desgaitasuna duten pertsonen erakundeek kontsulta eginez onartu behar dira.

Dokumentua **elkarturen** webgunean kontsulta dezakezu



www.elkartu.org

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO PROGRAMAREN EBALUAZIOA

elkartuk, UPV/EHurekin batera, ikerketa-proiektu bat egin du Gipuzkoako Bizimodu Independenteterako Programa ebaluatzeko.

Programa hori 2004an sortu zen esperimentalki, eta, gaur egun, abenduaren 23ko 87/2008 Foru Dekretuak arautzen du. Dekretu horren bidez, desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dira. Programa horretan, “18 urtetik gorakoek bizimodu independentea egin ahal izateko laguntzak” jasotzen dira diruz lagundu daitezkeen laguntza-moten artean, “baldin eta egoitza-baliabideak baztertu eta bakarrik edo beren familia osatuta bizitzea aukeratzen badute”.

Ia 20 urte igaro dira Bizimodu Independenteterako Programa onartu zenetik, eta nazioarteko, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta foru-aldundietako desgaitasunaren arloko arauen eta politiken bilakaera kontuan hartuta, beharrezkotzat jo da programa ebaluatzea. Horri esker, hasiera batean planteatutako helburuak lortzen zein neurritan lagundu duen aztertu eta ondorioztatu ahal izango da, bai eta desgaitasunaren arloko foru-politikak Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren eskakizunetara erabat egokitzeko beharreko neurriak zehaztu ere.

Programaren eragina hainbat ikuspegitatik aztertzeko, ikerketak honako eremu hauek jorratzen ditu:

- **Alderdi orokorrak;** parte-hartzaileen profilarren ezaugarriak, eta Bizimodu Independenteterako Programako laguntzak eskuratzearekin eta programaren garapenean izandako parte-hartze eta gorabeherekin lotutako gaiak.
- **Gizarte-eremua;** bizimodu independentea-



ren ereduak ematen duen inklusio-mailaren azterketa.

- **Eremu psikologikoa;** bizimodu independentearen ereduak ongizate emozionalean eta desgaitasuna duten pertsonen ahalduztzean nola eragiten duen egiaztatzea.
- **Eremu ekonomikoa.** Bizimodu independentearen ereduaren errentagarritasun ekonomikoa aztertzea, baliabide publikoen eraginkortasuna bermatzeko modu gisa.

Ikerketak egiaztatu duenez, bizimodu independentearen ereduak desgaitasuna duten pertsonen gizarte-inklusioa bermatzen du, bai eta gainerako pertsonak duten osasun emozional berbera izatea ere, eta, horrela, ahalduztzea eta aukeratzeko askatasuna bultzatzen ditu beren bizitzako alderdi guztietan. Era berean, inbertsio publikoak desgaitasunaren arloko politiken eta neurrien eraginkortasuna bultzatuko duen itzulketak ekonomikoki handia bermatzen du.

Azterlanaren amaieran, dekalogo gisa, Bizimodu Independenteterako Programa finkatzen, bultzatzen eta garatzen esku hartu behar du-

ten eragileentzako proposamen eta gomendio multzo bat dago:

- 1 **Bizimodu Independenterako Programa Gizarte** Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan sartzea.
- 2 Laguntza pertsonaleko zerbitzuaren kostu osoa ordainduko dela **bermatzea**.
- 3 Diru-sarrera gutxien dituzten pertsona desgaituek programan parte har dezaten **sustatzea**.
- 4 Desgaitasuna duten gazteen parte-hartzea **bultzatzea**.
- 5 Desgaitasuna duten landa-eremuko pertsonen programan parte har dezaten **bultzatzea**.
Programa **bultzatzea**, desinstituzionalizazio-prozesuak diseinatzeko eta garatzeko tresna den aldetik.
- 6 Etxebizitzen alokairua (eta batez ere alokairu soziala) sustatzeko politika publikoen gauzapena **bultzatzea**.
- 7 Laguntza pertsonala kontratatzekeko transferentzia ekonomikoari laguntzeko baliabide osagarria **eratzeta** (Bizimodu Independentetaren Bulegoa).
- 8 Desgaitasuna duten pertsonen artean programaren ezagutza sustatzeko estrategia **bultzatzea**.
- 9 Bizimodu independentearen ereduaren ezagutza sortzea eta partekatzea **sustatzea**.
- 10 Dokumentua eskuragarri dago **elkarturen** webgunean



www.elkartu.org

GIPUZKOAKO HONDARTZEI BURUZ PARTE HARTZEKO PROZESUA

Udan zehar, parte hartzeko prozesua egin da mugikortasun urriko pertsonentzako Gipuzkoako hondartzetako bainu lagunduaren zerbitzuari buruz.

Horretarako, desgaitasuna duten hainbat pertsonak erabili dute zerbitzu hori Donostian (Kontxa), Zarautzen, Hondarribian, Zumaian (Itzurun), Getarian (Malkorbe) eta Mutrikun (Portua). Honako gai hauek aztertu dira, besteak beste: zerbitzuari buruzko informazioa, aurretiko erreserba, hondartzarako sarbidea, irisgarritasun-baldintzak, zerbitzuaren kokapen-eremua, aldagelak edo arropaz aldatzeko eremua, arropaz aldatzeko laguntza, laguntzaileen prestakuntza eta tratua, bainurako laguntza-produktuak, dutxa, egoteko eremua, etab.

Parte hartzeko prozesutik lortutako informazioa, bai eta desgaitasuna duten pertsonen egindako tailer osagarrietan planteatutako hobekuntza-proposamenak ere, **elkartuk** partekatu egingo du inplikaturako udalekin eta desgaitasuna duten pertsonentzako bainu lagunduaren zerbitzuaren garapenean esku hartzen duten eragile guztiekin, eskubide hori berdintasun-baldintzetan baliatzen dela bermatzeko.



| Gipuzkoa |

REHACARE LAGUNTZA- PRODUKTUEN AZOKA

Irailaren 13tik 16ra Rehacare laguntza-produktuen azoka egin zen Düsseldorf (Alemania), errehabilitazioaren, zaintzaren, prebentzioaren eta inklusioaren arloko munduko ekitaldi nagusietako bat.

elkartu bertan egon zen, autonomia pertsonala sustatzeko produktuaren arloan merkatuak eskaintzen dituen berrikuntza nagusiak ezagutzeko: mugikortasunerako laguntzak, osasun-zaintzarako neurriak, komunikazio-teknikak eta irisgarritasun-soluzioak, edo turismorako, kiroletarako eta aisialdirako elementuak...

Desgaitasuna duten pertsonentzako soluzio tekniko eta teknologikoei buruz eskuratutako informazioa partekatu ahal izango da Federazioak egunero egiten dituen informazio- eta orientazio-jardueretan.



GIPUZKOAKO ELKARRIZKETA ZIBILERAKO MAHAIA

Ekainaren 13ko 11/2023 Foru Dekretua argitaratu da, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia sortu eta arautzen duena, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hirugarren Sektore Sozialeko sareen arteko elkarrizketa zibilerako kontsulta-organo hori sortu eta arautzeko.

elkartu, desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituen sarea den aldetik, Gipuzkoako Elkarrizketa Zibilerako Mahaia osatzen duten sareetako bat dela aitortu da, eta, beraz, modu aktiboan lagunduko du pertsona guztien inklusioa eta aukera-berdintasuna bermatzeko duten politikak eta neurriak sustatzen.

MATRIKULAZIO ZERGAN APLIKATU BEHARREKO IRIZPIDEA

elkartuk jakin duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak interpretazio murriztailea egiten du, desgaitasuna duten pertsonen matrikulazio-zergan salbuespena aplikatzeko “ibilgailuaren erabilera eskusiboari” buruzko betekizunari dagokionez.

Errealitate horrek desgaitasuna duten pertsonen kalteak ekar diezazkiekeenez, eta horrek ekar ditzakeen ikuskapen- eta berrikuspen-jarduketak kontuan hartuta, idazki bat bidali diogu Ogasun eta Finantza Sailari, honako hau eskatzeko: “*erabilera eskusiboa*’ kontzeptuaren interpretazio malguagoa, koherenteagoa eta desgaitasuna duten pertsonen aldeko fiskalitatearen arloan hartutako ekintza positiboko neurrien helburuetara egokitua egin dezala, bai garraiobide jakin batzuen gaineko zerga berezian salbuespena aplikatzeko, bai trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan edo balio erantsiaren gaineko zergan salbuespena aplikatzeko; eta, beraz, ez dezala eskatu ibilgailu soilik desgaitasuna duen pertsona ibilgailuan dagoenean erabil dadin”.